



**ETXARRI ARANAZKO UDALA**  
Kale Nagusia 10 (KP 31820)  
Tef. 948460004  
udala@etxarriaranatz.com  
www.etxarriaranatz.com

# EDIKTUA

## ALDAPASOROKO UR-HORNIDURA SANEAMENDUA ETA ZOLADURA

### OBRAREN EXEKUZIOA ESLEITZEA: PROZEDURA HASTEA

6/2006 Kontratu Publiko Foru Legea 40. artikulok dioenez udalak Aldapasroko urbanizazioa egiteko beharra zegoenez, Toki Azpiegituen 2009/2012ko Planan aurkeztu zuen eta Nafarroako Gobernuak onartu zuen.

Toki Administrazioari UZuendariak 170/2014 eta 437/2014 Ebazpenetan diru laguntza onartu eta zehaztu egin du.

Plegua landu ondoren, espedienteko dokumentazioa eta idazkariaren txostena ikusita; 6/2006 Foru Legearen ezarritakoari jarraituz, Osoko Bilkurak aho batez ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Kontratazio espedientea onartzea, kontratuko administrazio baldintza partikularren plegua onartzea.

BIGARRENA.- kontratazio prozedura irekitzea. Prozedura irekia eta izapidetze aurreratua izango da.

HIRUGARRENA.- 783.337,08 euroko gastua onartzea. Izapidetze aurreratua denez 2015eko aurrekontuan behar den partida sortuko da.

LAUGARRENA.- Iragarkia Nafarroako Kontratazioaren atarian argitaratuko da.

**Etxarri Aranatz, 2015eko urtarrilaren 9an.**  
**Alkatea: Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena**

